

Oiartzun

Oiartzun behatu eta entzun



Egileak:

Talde urdina (Happy)

LH 5A



Ikastolen Elkartea

Oiartzun gozatu

Luki



Aurkezpena

Kaixo, lagunok! Ni Luki naiz. Oso oso urduria naiz, urtxintxa bat bezala, bueno urtxintxa bat naiz.

- Egun zoragarria pasa nahi duzu?

- ¡Ven y disfruta de una experiencia inolvidable!

- Come and enjoy our town!

Presentación

Jakin-min handikoa ere banaiz, betitik izan dut gauza berriak ezagutzeko eta gozatzeko gogo bizia.

Oiartzun begirada batean

Kokapena

Oiartzun Gipuzkoako herri zoragarri bat da, eta ipar isurialdean dago kokatuta. Oiartzunek Errenteria, Lezo, Irun, Lesaka eta Goizueta ditu mugakide.

Erliebe-elementuak

Oiartzungo erliebe-elementuak hauek dira: Ibaiak, mendiak, amildegiak...

Bestelako informazioa

Oiartzungo ibaiak Oiartzun ibaia dauka izena. Oiartzunek mendi asko ditu, adibidez Aiako Harria.

Xabier Lete, Juan Maria Lekuona, Sebastian Mendiburu, Sebastian Lartangoa... dira Oiartzungo pertsona ospetsu batzuk. Ioteak eta auzoko festak dira Oiartzungo jai nagusienak.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Aiako Harria



Aiako Harria oso leku polita da, mendi bueltak egiteko. Oiartzun, Irun eta Lesaka artean dago.

4km luzaera du. Aiako Harriak ibilbide asko ditu: Ibilbide luze batzuk 12 km dituzte eta motzak umeekin joateko aproposak dira.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Arritxulo



Arritxulo Oiartzunen kokatuta dago, Aiako Harriaren ondoan. 2002an sortu zen. Etxe handi bat bezala da eta bi solairu ditu.

Arritxulo jatetxe bat da, taberna bat eta lo egiteko leku bat. Bigarren solairuan umeentzat jolasteko koltxoneta batzuk daude. Arritxuloren ondoan Aiako Harriak daudenez, goiz batean Aiako Harrira joan eta mendi buelta polit bat egin ondoren Arritxulon bazkaldu dezakezute.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

Udaletxea



Udaletxe hau Oiartzungo Elizalde auzoan dago. Nicolas de Zumetak egin zuen 1678. urtean.

Bertan, antzerkiak egiten dira, baita musika eskolako kontzertuak. Udaletxeak oso diseinu polita dauka. Bere azpian frontoi bat dauka eta balkoiaren gainean bi armarri ditu. Paretaren materiala arroka ondarra da.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

Labaderoa




Labadero hau Oiartzunen (Gipuzkoan) dago.

Etxe bat bezala da, lehio asko ditu eta bi ate. Etxeko zati gehienak harrizkoak dira, teilatua izan ezik. Alde batean atzeko plano berde iluna da eta erdian mosaikoz egindako bi pertxona daude arropa garbitzen.

Labaderoak lehen jendearea arropa garbitzeko balio zuen.

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Susperregi jatetxetik Aiako Harrietara joateko, bederatzizko erreferentziako puntu daude.

Deskribapena

Susperregi jatetxetik hasita Aldura Gunea Aldea bidea hartu. Zariren diagonalean bi kale daude, hartu ezkerrean. Ondoren jarraitu aurrera lehenengo parkina aurkitu arte. Hor hartu GI-3631 errepidera eta jarraitu aurrera Parking Munerren (camino de-Oianleku-Bidea). Joan goraka Artikutza bidetik Oielekuko bidea hartu arte. Kurba handia hasi baino lehenago atera bidetik eta iritxiko zara Aiako Harrira.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Aiako Harrietatik Arritxuloraino joan nahi baduzu, zortzi erreferentzia puntu daude.

Deskribapena

Aiako Harritik hartu Artikutzako bidea bidegurutzeraino, eta gero ezkerrera. Zuzen jarraitu eta bigarren bidegurutzean eskubira hartu. Zuzen jarraitu beste bidegurutze bateraino. Joan eskubira Aristiburu bidetik Añakade bidearekin topo egin arte. Añakadi bidetik jarraitu aurrera eta joan eskubira Lesaka bidetik eta bidegurutzean hartu ezkerreko bidea.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Arritxulotik Oiartzuneko udaletxeraino, bide gurutze bat eta kaleak dira erreferentzia puntuak.

Deskribapena

Jarraitu bidean aurrera berriro Lesaka bidea aurkitu arte. Bidegurutzearen ondoren biratu Arritxulo aurkitu arte. Lesakako Bidetik joan Arditurriraino. Gero, berriro Lesakako bidetik joan, Tornola kalera iristen zarenean aurrera Ergoiengo Bideraino. Egin aurrera Bidegain kaleraino. Gurutze Bidera iristen zarenean aurrera. Iparralde Hiribidera iristen zarenean segi aurrera Donibane kaleraino. Joan aurrera Oiartzungo Udaletxeraino.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Udaletxetik Labaderora joan nahi baduzu, erreferentzia-puntu bat. Udaletxetik Ipatia izeneko parke natural bat dago.

Deskribapena

Oiartzungo udaletik Labaderora joan nahi baduzu joan Banko Sabadelera, ondoren, Kontzejuerreka kalera joan, geroago, Manuel Lekuona Hiribidean sartu ondoren, egin aurrera. Bide gurutze guztian jarraitu aurrera. Labaderoa musaiko batez egina dago, bi andre dira pareta batean protagonistak.

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Labaderotik Susperregi jatetxera joateko bost erreferentzia puntu daude.

Deskribapena

Manuel Lekuona hiribidea hartu. Ezkerrera biratu, eta Rafael Pikabea hiribidetik joan. Biribilgunean zaudenean aurrera egin Iradi bidetik eta biratu eskubira Olagarai kalera. Hartu Astigarrako bidea Gl-2132 errepidean, Aldura gunea aldera bidera iritsi arte. Joan Inaxio Berasarte bidera eta joan eskuineko bidegurutzera. Landarbaso bidea hartu eta gero Aldura gunea aldeara joan Susperregi jatetxerarte.

ONDO PASA!!!

Bisitarientzako gomendioak

Eraman arropa egokia ibilbideak egiteko.

Eraman poltsa bat sortutako zaborra lurrera ez botatzeko.

No asustes a los seres vivos que viven en la zona.

No arranques las plantas.

If you have a pet, pick up the poo in a poo bag.

Take water.